



HEZKUNTZA SAILBURUAREN AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN DEN

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Lege-aurreproiektuaren prozedurari hasiera ematea aurreikusi du.

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, hogeita bost urte baino gehiago ditu gaur egun indarrean. Bada, lege hori egokitzea behar-beharrezkoa da, are gehiago kontuan hartuta orduz geroztik gizartean, ekonomian, pedagogian eta teknologian gertatu diren aldaketa sakonak. Hori dela eta, euskal gizarteari eta hezkuntza-komunitateari azaldu behar zaio lege-esparru horrek, eguneratzeko beharra duela, eta horretarako, Euskadin unibertsitatez kanpoko hezkuntza arautuko duen beste lege bat onartu behar dela, ekainaren 28ko 4/2018 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzkoan landu diren gaiak salbuetsiz.

Izaera orokorreko arau-xedapenak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen 2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez, alde aurreko kontsulta-izapidea erabaki zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 133 artikulua 1. apartatuan xedatutakoa betetzeko, zehazki, herritarrekin duen interakzio-izapideari bidea emateko, zeina arau-testu juridiko zehatz bat onartu aurretik egin behar den.

Alderdi hauek bildu behar ditu kontsultak:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Ekimena onartzeko premia eta aukera.
- Arauaren helburuak.
- Egon daitezkeen konponbide arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Bultzatu nahi den legegintza-ekimenaren xedearen garrantzia eta norainokoa kontuan hartuta (Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza arautzeko esparrua), egoki eta komenigarri ikusten da, etorkizuneko lege esparru horrek eragin ziezaikeen herritar eta erakundeek, beraien iritzia ematera gonbidatzea, jarraian zehazten den Eranskinen jasotako informazioari buruz, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko iragarki-taulan argitaratzen denetik hogeita egun balioduneko epean. Ekimena, araua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasierako fasearen barruan.





Aipatu behar da, 2019an hasi zela Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren lege-aurreproiektua egiteko izapidetze-prozesua, zehazki aurretzako kontsultari buruzkoa, zeina 2021eko abuztuaren 30eko datan bertan behera geratu baita. Ildo horretan, adierazi nahi da Hezkuntza Sailaren asmoa dela aurretzako kontsulta-prozesu horretan aurkeztutako proposamenak kontuan hartzea.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak eskuordetutako eskumenen arabera, hauxe

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Ekimena gauzatu baino lehen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Lege-aurreproiektuaren alde aurreko kontsulta izapidetzea.

Bigarrena.- Arauak ukitutako herritarrek, erakundeek eta entitateek, hala iritziz gero, Aginduaren Eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritziak helaraz ditzakete hogeit egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Hezkuntza sailburua

Jokin Bildarratz Sorron
(Sinadura elektronikoa)



ERANSKINA: KONTSULTA PUBLIKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA
LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGIN AURRETIKOA

<p><i>I. EKIMENAREN BIDEZ KONPUNDU NAHI DIREN ARAZOAK.</i></p>	<p>Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, hogeita bost urte baino gehiago ditu gaur egun indarrean; beraz, orduetik hona gizartean, ekonomian, pedagogian eta teknologian gertatu diren aldaketa sakonak kontuan hartuta, beharrezkoa da egungo lege-esparrura egokitzea, baita gero eta anitzagoa eta izaera zorrotzagoa duen gizarte baten eskaerei erantzutea, edo egungo erroka demografikoetatik eta aldaketa teknologikoetatik eratorritakoei erantzutea ere.</p> <p>Gaur egungo eta datozen hamarkadetako erronei erantzuteko ezinbestekoa da berrikuntza eta hezkuntza-prozesuari aplikatu daitezkeen ekarpen zientifikoak aintzat hartzea; ikusmiran izatea beren ikaskuntzaren subjektu aktibo diren ikasle ahaldunduak, hala nola, ikasleak gidatzen eta laguntzen dituzten eta komunitatean ikasten duten familia eta irakasleak; hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eskola antolakuntza bat eratzea, beren hezkuntza- eta komunitate-proiektua, espazio fisiko berrietan, eta beren ingurune soziokultural eta instituzionalarekin elkarrekintzan kudeatzen duten ikastetxe ahaldunduekin; euskal hezkuntza-sistemaren gobernantza eredu berri bat ezartzea, erantzunkidea, elkarlanekoa, deszentralizatua eta udalerrri- lurralde- eta autonomia- mailan egituratua.</p>
<p><i>II. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA LEGE-AURREPROIEKTUA ONARTZEKO BEHARRIZANA ETA AUKERA.</i></p>	<p>XII. Legegintzaldiko Gobernu Programan Euskal Hezkuntzaren Legea onartzeko konpromisoa ezartzen da. Proposatzen den arau-neurriaren beharrizan eta aukerak azalpen objektiboa dauka: alde batetik, 1993az geroztik gertatu den testuinguru-aldaketa sakona (urte hartan onartu zen otsailaren 19ko 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa), eta bestetik, lege-esparru hori ingurunean gertatzen ari diren eta hezkuntza-sistemari berari zalantzarik gabe eragiten dioten erroka eta eraldaketei egokitzeko premia.</p> <p>Euskal hezkuntza-sistemaren ereduaren eraldatze prozesua, beraz, egiturazko nahiz existentziatzeko premia objektibo</p>



	<p>bilakatzen da. Abiadura biziko testuinguru batean kokatuta egonik, hezkuntza birpentsatu beharra dago, bai gaur eguneko hezkuntzaren printzipio, metodologia eta edukiak, baita antolaketa eta kudeatzeko eredua ere. Xede horrekin irakasleen figurari balio erantsia eman behar zaio, bere profil eta rola zehaztuz. Euskara ere ez da ahaztu behar, identitate propioaren zeinu gisa, ikaskuntzaren oinarri izan behar baitu, hizkuntza-normalizazioari eta gizarte-kohesioari erabakitasunez laguntzeko.</p> <p>Beraz, argi gelditzen da Euskadiko hezkuntzaren arau- esparru berria lantzeko proposamen honen aukera. Are gehiago, gaur egungo egoera zein den kontuan hartuta: iraultza teknologikoa (nahitaez iraultza horri egokitu beharko zaio euskal hezkuntza- sistema), eta globalizazio gero eta handiagoa eta adin-piramidearen aldaketa esanguratsuak, bai biztanleria osoarenak (zahartzea), bai irakasleenak beraienak, jaiotza-tasaren jaitsiera, eta baita, ikasleen artean gero eta handiagoa den aniztasuna, datozen urteetan ziurrenik are nabarmenagoa izango den joera. Erronka horiek direla eta, beharrezkoa da bizikidetzaren tolerantziaren balioak indartzea, ekitatearen eta kalitatearen edo bikaintasunaren alde egingo duen hezkuntza-sistema bat ezartzea, betiere, inklusioa eta balio demokratikoei eta pertsonen funtsezko eskubideei zor zaien erabateko errespetua ahaztu gabe, horiek baitira Europako gizartearen oinarria.</p>
<p><i>III. AURREPROIEKTUAREN HELBURUAK.</i></p>	<p>a) 1/1993 Legean, Euskal Eskola Publikoari buruzkoan jasotzen den gaur egungo araudia aldatu eta eguneratuko duen lege-esparru berri bat taxutzea, hargatik eragotzi gabe etengabeko aldaketa bizkorrak gertatzen diren garai batean irauteko eta egonkorrak izateko bokazioa daukaten arauak txertatzea.</p> <p>b) Euskal hezkuntza-sistemaren bikaintasunean aurrera egitea eta, horretarako, ekitatea, gizarte-kohesioa, balioetan oinarritutako heziketa, pluralitate eta pentsamendu- nahiz sinesmen- askatasunaren errespetua, giza eskubideen errespetua eta aniztasunaren defentsa sustatzea. Bide horretan, kultura zientifikoa eta humanitateak uztartzen dituen hezkuntza-eredu bat bultzatuko da, eta eredu horren osagarri, bizialdi osoko irakaskuntza. Azken batean, helburua da ikasleek errealitatearen gaineko ikuspegi kritikoa eta eraldatzailea izan dezaten lortzea.</p>



c) Euskal hezkuntza-eredua modernizatzea, ezagutzaren gizarteari, iraultza teknologikoari, ezinbestekoa den eraldaketa digitala eta eskola antolatzeko egitura eta modu berriak sortzea, hau da, hezkuntzaren paradigma berrira egokitzeke egin beharreko eraldaketekin bat datorren eredu, alegia.

d) Bizikidetzaren aldeko apustua egitea, eskola anitza egituratzeko ardatz gisa; apustu horrek dakar ikasleak ikastetxeen sarbiderako berme-mekanismoak ezartzea, eskolatzeko inklusibo eta orekatua eta gizarte-kohesio handiagoa lortzeko, bai eta bizikidetzaren positiboa, hezkidetzaren eta kulturaren sustatzea ere.

e) Sistema eleaniztun baterako esparru propioa taxutzea. Euskara ardatz izango duen sistema hori ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren eta sistema eleanitz baten aldeko ikuspegi metodologiko baten bitartez egituratuko dena, halaber gizartearen ardura konpartitua oinarri hartuta eredu hori behar bezala bideratzeko.

f) Hezkuntza-sistema etengabe hobetzeko ebaluazio-sistema propioa taxutzea, arreta berezia jarriz ikaslearen kompetentzien araberako ebaluazioan, zuzendaritza-funtzioaren eta irakaslearen ebaluazioan, lanbide-jarduera hobetzera bideraturik, eta, azken batean, ikastetxearen ebaluazioan, sistema autonomoago, efikazago eta efizienteago batean aurrera egiteko.

g) Ikastetxearen autonomia irmotasunez sustatzea, beren hezkuntza-proiektuak hobeto gara ditzaten; horretarako, kudeaketako erantzukizun-esparruak taxutzearen edo erantzunkidetasun kultura sartzaren alde egitea, horiek baitira autonomia horren funtsezko giltzarriak. Horrela, ikastetxearen proiektuan hezkuntza-komunitatearen partaidetza ahalbideratuz, proiektu horren bitartez ikastetxearen autonomiaren printzipio hori efektiboa izan dadin.

h) Hezkuntzako gobernantza-egitura eta -eredu bat sustatzea, hori beharrezkoa baita hezkuntza-sistemaren bilakaerari ekiteko, eta bilakaera horretan kontuan hartzea, oro har, hezkuntza-komunitatearen protagonismoa, eta, bereziki, ikastetxeetan irakasleek eta zuzendaritza-funtzioak daukaten berebiziko rola.



*IV.- EGON DAITEZKEEN
KONPONBIDE ARAUTZAILE
ETA EZ-ARAUTZAILEAK.*

Printzipioz, ez dago alternatiba ez-arautzailerik gaur eguneko erronkei eta hezkuntza-sistema lehen deskribatutako baldintzetan egokitzeko beharrari aurre egiteko.

Hezkuntzaren zerbitzu publikoa nahitaez arautu behar da, batez ere hezkuntza funtsezko zutabea delako gaur egungo gizarteetan, sistema politiko demokratikoetan eta, halaber, herrialde baten garapen ekonomikoan.

Aukera bakarra –azaldu diren arrazoiengatik egokitzat jotzen ez dena– 1/1993 Legearen, Euskal Eskola Publikoari buruzkoaren indarraldia mantentzea izango litzateke; hala eginez gero, ordea, hain garrantzitsua den gai hori etengabe eboluzionatzen ari den errealitate sozial eta teknologiko bati aurre egiteko zaharkituta dagoen arau-esparru baten bidez arautzen jarraituko litzateke; hortaz, ez da egokitzat jotzen araudi hori mantentzea testuinguruaren gaur egungo eskakizunei egokitu gabe edo moldatu gabe.